

Proiektu Eragile 14 DONOSTIALDEA, SARTZEN ERRAZA DEN HIRIA

AZALPENA:

Premiazkoen den behar garrantzitsuenetako bat Donostialdean sartzeko erraztasuna dugu. Plan Estrategikoak dioen bezala, (D.1.2. estrategia), **“Garraio-sistema ezinbestekoa da Hiri-Komunitate bat antolatzeko garaian, inguruko puntu ezberdinen artean, hiritarren higidura azkar eta eroso bermatu behar baitu, ez erdialderantz eta erdialdetik bakarrik, baita zeharka eta era perimetralean ere, erdigune berrietara heltzea ahalbidetuz.** Planteamendu honek, alde batetik, garraio publiko ezberdinen integrazio eta kudeaketa komuna behar ditu, **intermodaltasuna** errazteko. Bestetik, azpiegiturengan ere badu eragina, zenbait kasutan, tokiz gaindikoak diren **konexio bideen birmoldaketa** Hiri-Komunitateko barne komunikaziotan eta bestetan, RENFEk eta Euskotrenek dituzten garraioen potentzial guztiaren aprobetxamendua ahalbidetuz (batez ere “Topoa”) eta egingarriak diren beste balizko proiektu batzuk aztertuz (tranbia-metro arina, lurrazpiko metroa eta abar...).

Bestalde, argi dirudi hiri-barneko garraio sistema honek **jasangarritasun** printzipio batek gidaturik egon behar duela, honen arabera, disuasio neurriak dituzten politika eta benetako alternatiben bidez, batez ere, garraio publikoa eta autoari alternatiba diren garraioak bultzatuko lirateke.”

Plan Estrategikoak (D.2.2 Estrategia) garraio azpiegitura handien inguruan jarraitzen du: “Donostiak duen kanpoko kokapen horren parte bezala, garraio sare handienek ezinbesteko rola jokatzeko dute, lurralde Europarraren elementu egituratzaile bezala, beraz, Hiri-Komunitateak nazioarteko egitura nagusienetatik baztertzea ekidin lortu behar dute. Gaur egun, honen inguruko bi proiektu planifikatzen ari dira, hauetan Donostiak bertan egon behar du, bere interesen arabera, eragina izaten saiatzeko.

Hauen artean, EAEko barne-eremuan, nahiz estatu edo nazioartean, komunikabideak hobetuko dituen **trenbide sare berri baten proiektua** azpimarratu behar da, Euskaditik pasatzean, Donostia, Paris eta Madril batzen dituen ipar-hego ardatzaren parte izateko egoeran jarriz. Kontutan hartu beharreko beste proiektuak, portuetako azpiegiturengan (Pasaia, bere inguruan jarduera ekonomiko hazkunde ukaezin batekin) eta aireportuengan eragina dutenak dira (Hondarribia, Miarritze, modernizazioa eta koordinazioa) eta hauen inguruan, Donostiak rol eraginkor bat jokatu behar du.”

Ibilbide motz, zein luze batean, sartzeko erraztasuna hobetzeko behar hau, bi planoek kontutan hartzen dituzten ekimen multzo baten bidez adierazten da, hauek halabeharrez egon behar dute konektatuta.

Proiektu Eragile 14 DONOSTIALDEA, SARTZEN ERRAZA DEN HIRIA

HELBURUAK: D-1 helburuan egiten du indar, batez ere: *“Donostialdeko hiri-komunitatea artikulatu, azken hau, koordinatu, orekatu eta sostengatutako hiri-espazio berezi bezala ulertuz”*. D.1.2 estrategian ere, badu eragina, garraio publikoa eta auto pribatuari alternatiba diren garraioak bultzatuz, hiri-eskalan eginiko eta gizarteratutako sistema jasangarri bat egitearen” beharra azpimarratzen du. Azkenik, D.2.2 Estrategian du eragina, honek *“Hiri-Komunitatea, nazioarteko garraio azpiegituren sareetan integratzea bultzatzea”* sustatzen du.

DESKRIPZIOA:

Ibilbide motz eta luzean sartzeko erraztasuna hobetzea helburu duten zenbait ekimenen aurrean gaude.

- **Tren garraio sarea eta honek autobusarekin duen interakzioa optimizatu.** Beste bitarteko zenbait
 - Garraioen partzuergoa
 - Geltoki Intermodala
 - RENFEren trenbideen lurpean jartzea
 - Topoa eta Eusko-Trena, Metro Intercity bihurtu, trenbideak bikoiztuz, eta abar.
 - RENFEren aldiriko trena indartuz
 - Alternatiba hoberena aztertzea (Tranbia, Metroa, Tramu-busa,...)
 - Hiriko auzoak bidegorri eta oinezkoentzako ibiltokien bidez konektatzea
 - Garraio publikoari konektatutako disuasio aparkalekuak
 - Kutsatzen ez duen garraio publiko sistema (Hidrogenoa, eta abar.)

- **Beste garraio azpiegitura zenbait, edo Euskadi-Nafarroa, Eurohiriko edo nazioarteko hiri sistemarekin lotzeko beste azpiegiturak.**
 - 2. ingurabidea
 - Urumeako autobidea
 - Iruneraino, hiru bide jartzea
 - Inguruko aireportu eta hiriekin konexioa duen Abiadura Handiko Trena
 - Donostiako (Hondarribia) aireportuaren optimizazioa